

DENPORA BANKUAK TRUKIAN OIÑARRITUTAKO SISTEMIA DARABIL

Zure denporiak dirua balixo dau

Dana saldu eta erosi egitten dan mundu batian, diru barik gauzak egin leikiazenik be imajinatzan gatxa egitten jako askori. Halanda be, kredituak anuanziatzia horren modan daguan sasoi honetan, oso banku berezixa presentau eben aurreko astian Portalean: Auzopolis edo denpora bankua. Dirua barik, jendiaren denporak daka balixua eta kanbixorako moneta eurua izan biharrian ordua da. Antxiña horren arrunta zan trukian oiñarritutako sistemian arrakastarekin bizi dabe munduko herrialde aurreratu askotan eta gurera be aillegau da, Debabarrenian bere tokixa topatzeko asmuarekin.

Maite Fernandez eta Inma Pagaldai ermuarrak Auzopolis, dirua irabazteko asmorik bari-ko alkartia martxan ipiñi eben oktubrian Ermuan eta hiru hillebeteko epian 30 lagunetik gora batu jakuez euren proiektuan. Denpora Bankua hiriko bizitzak sortu daben bakardade eta isolamenduarekin apurtu nahi daben ekimena da. Bultzatzaillien berbetan, "alkartasun eta lankidetzan balixuak praktikan garatzeko, pertsonak alkarrengana gerturatzeko eta konpartitzeko tokixa sortzen dau proiektuak. Horri lotuta dator AUZOPO-LIS izena: AUZO, auzua eta POLIS, barriz, hirixa. Izenetik honako ondorixua etara geinke: programiak auzuak betidanik izan dittuen gauzarik onenak berreskuratzea biltzen dau, onura hórrek gaur egungo hirixetako gizartierekin bateragarrixak izateko ahalegiña eginda".

Denporia, gure aberastasuna

Horretarako, Denpora Bankua ipiñi dabe martxan. Maite Fernandezen berbetan, "funtzionamendua ezagutzen dittugun bankuen modokua da, baiña dirua erabilli barik jendiak denporia erabiltzen dau". Erabiltzailliak hainbat zerbitzu eskatu zeñ eskindu leikez, truke sisteman erabillitza. Ohiko bankuetan bezala, erabiltzailliak izena emon bihar dau eta kontu bat zabaldu, bankuaren zerbitzuak erabilli ahal izateko. Kontu horretan ez da dirurik gordeko, denporia baizik. Lan ordua da balixo unidadia eta, beraz, denporia da aberastasun nagusixa, "danak balixo dau egingo dozun biharra egitteko bihar dozun denporia".

Adibide batekin oso modu errazian ulertzen da bankuaren filosofixa: "Rosak aste batzuk barru bodia daka eta bere soñekuari barrena hartu bihar detsa. Auzopolisera juan eta la-



Inma Pagaldai eta Maite Fernandez, Auzopolis ekimeneko sortzailliak.

guntasuna eskatu dau. Auzopolisek bere datu basean begiratu eta Marixabel josten laguntzeko gertu daguala ikusi dau. Auzopolisek Marixabeli deittu eta berak Rosaren lana onartzen dau; Rosaren etxera juan, barrena hartu eta hurrengo egunian soñekua konponduta bueltatzen detsa. Orduan, Auzopolisek Marixabelen kontuan lanordu bi ingresatzen dittu (barrena hartzen emon daben denporia)". Gero, Marixabelek beste edozer gauza bihar dabenerako, ordu biko lanorduak (edo pirlatu dittuanak) erabitzeko aukeria eukiko dau.

Lan trukiak ez dira zertan "bikoteka" izan bihar, hau da, "nik zuri egin eta zuk neri". Egindako zerbitzua lan orduetan neurtu eta bankuan gordezen dabe, etorkizunian erabilli ahal izateko.

Ikastaro baten ondorixua

Ermuar hóneri Ermuko Udalak antolatutako ikastaro baten ostian okurridu jakuen proiektua: "Tokiko Garapenari buruzko ikastarua egitten geguazen eta proiektua pentsatzen hasi giñan, baldintza batzuekin. Banku mota honek baldintzok bete-betian betetzen dittuala pentsatzen dogu: bertakuak egindako ekimenak dira, bertakundako. Izan be, aurrera egiñ ahal izateko eta proiektuak kontinuidadia eukitzeko hamen bizi dan jendia bihar da. Ikusten dogu gure gizartian gero eta indibidualistaguak garala, jendiak ez detsa aldamenekuari laguntzen. Denpora bankuak danok mailla berian ipintzen gaittu, trukia kontuan hartuta ez dago hierarkiarik, balixo bera daka pelukera batek egiñ ahal daben biharra, iturgiñarena, umiak zaintzen dittuanarena...



- **tartak**
- **enkarguak**
- etxera**

Bidebarrieta 28
☎ 943 20 79 73

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40
uthemek@uthemek.com



UTHEMEK

MEKANIKETARAKO

TRESNAK

SPK- Zeramika, silizioa
ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak
ROY - Diamante eta boraxezko harriak

danak balixo dabe bardin, jardunian emoten dan denporia kontabilizatzen da”.

Bizi-kalidadia hobetzen

Herrixaren bizi-kalidadia hobetzia da helburua, auzolana bultzatuta. Auzokuen arteko konfidantza girua sortu nahi horri lotuta, “beste herri bat posible dala” sinestia inportantia da. Denporaren Bankuko bazkidiak elkarri lagunduta, gaur egunian bizitza laborala eta familiarra bateratzeko aukera haundixaguak ikusten dittue Auzopoliseko sortzaillak: “Eustat-en arabera, 2001ian Debabarrenian 5.287 etxetan lagun bakarria bizi zan (eskualdeko biztanlien %10 etxian bakarrik bizi zan). Horrez gain, 1.946 famelixa-unidade euren ardurapian seme-alabak dittuen andrak osatzen zittuen. Egoera berian eguazen gizonezkuak 691 ziran. Datuak ikusitta, batzuetan famelixa motarengaittik, beste batzuetan balibiede nahiko ez izatiagaittik eta hainbatetan bixak juntatzen diralako, bizitza laborala eta familiarra bateratzia oso gatxa edo ezinezkoa izaten da, askok ez dakelako diru nahikua zerbitzu jakin batzuk pagau ahal izateko”.

Bestela be, askorendako traba haundixa izan leike etxian zeozer konpondu bihar dala

**DENBORAREN BANKUAREKIN
HARREMANETAN IPINTZEKO**

E-maila: denborabankua@auzopolis.net
Helbidia: Zubiaurre, 20 (Ermua).
Telefona: 695777986.

Ordutegia: astelehenetik barixakura, 17.00etatik 20.00etara.
Informaziñua: www.auzopolis.net.

<p style="font-size: 8px; margin: 0;">Denbora Txekia Cheque del Tiempo</p> <p style="font-size: 8px; margin: 0;">Txeki honen bidez, hori ordaindu Páguese por este cheque a:</p> <p style="font-size: 8px; margin: 0;">Ordu kopurua / N.º horas:</p> <p style="font-size: 8px; margin: 0;">Ekintza / Actividad:</p> <p style="font-size: 8px; margin: 0;">Data / Fecha:</p> <p style="font-size: 8px; margin: 0;">Sinatzailea / Firma:</p>	<p style="font-size: 8px; margin: 0;">Denbora Txekia Cheque del Tiempo</p> <p style="font-size: 8px; margin: 0;">Informazioa / Información: 695 777 986</p> <p style="font-size: 8px; margin: 0;">Txeki honen bidez, hori ordaindu Páguese por este cheque a:</p> <p style="font-size: 8px; margin: 0;">Ordu kopurua / N.º horas:</p> <p style="font-size: 8px; margin: 0;">Ekintza / Actividad:</p> <p style="font-size: 8px; margin: 0;">Data / Fecha:</p> <p style="font-size: 8px; margin: 0;">Sinatzailea / Firma:</p>
--	--

eta han egoteko iñor ez dakalako, bere lana laga bihar izatia teknikuari atia zabaldu eta han egon bihar izatia. Auzopolisera jo ezker, konfidantzazko lagun bat lortzeko aukeria eskintzen dabe. Izan be, zerbitzuen zerrendia oso luzia da: umiak eta adiñeko pertsonak zaintzia, pelukerixia, odontologixia, brikolajia, mintzapraktikak (euskeraz, ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz), joste lanak, sukaldaritza, furgoneta eta kotxe zerbitzua, oporretan etxia zaintzia (kartak jasotzia, landarieri ura botatzia...), aholkularitza eta laguntza etxeko arlo diferentietan (elikadura, ekonomixia, garbiketia...), informatikia... eta zerrenda luzatzen juango da, jendiak izena emoten daben neurri berian.

Danondako tokixa

Auzopoliseko arduradunak azaldutakuaren arabera, “oso ekimen interesantia da, danondako tokixa dagualako. Danok bihar dogu zeozer, eta gitxien dakixanak be badaki zeozer egitten, danok balixo dogu zeozertan beste bateri lagundu ahal izateko. Pentsau arrain-zopia egitten ikasi nahi dozula, ba egongo da baten bat hori erakusteko prest, edo egitteko denporarik ez badakazu hari eskatu eta berak egitteko”.

Esperientzia honek oso arrakasta haundixa lortu dau beste toki batzutan be eta Ermuan oso harrera ona euki dau: “Hasi eta gitxira Ermuko Udalak sarixa emon zeskun, oso pozik gagoz, guretako aurrera egitteko pizgari moduko bat

izan da premixua. Ekimena jendiarendako erabilgarria izatiaz gain, jendiak talde bateko partaidia dala sentitzen dau. Halanda be, poliki juango gara aurrera egitten eta partaide kopurua zabalitzen, gauza barrixa da eta jendiak denporia bihar dau ohitzen juateko, ez dago prisarik. Trabarik haundixenak pentsakeran topauko dittugu, mentalidadian kanbixo bat eskatzen dau horrelako zeozerk”.

Asmua Ermutik Debabarrena osora zabalztzia da, “gauza ona dalako eta gauza onak zabaldu egin bihar diralako”. Eibarren egindako aurkezpenak ez eban espero bezain beste jende erakarri, “oso eguraldi eskasa tokau zan-eta. Baiña gu prest gagoz barriri be ekimena esplikatzeke nahi dabenari, herriko edozein taldek interesa euki ezker, gurekin harremanetan ipintzia dake eta gu juango gara barriri be esplikatzeraz zelatan funtzionatzen daben”.

Informaziño guztia, dana dala, interneten topau zeinkie, www.auzopolis.net helbidian (web orrixa bera, informatikan trebia dan Denbora Bankuko kide batek sortu eta eguneratu egitten dau). Diru barik gauzak lortu eta eskuratzeko aukeria zabaldu dau Auzopolisek.

MAITANE CASTILLO OTAOLA

Musika hilezkorra den bezalaxe, betirako iraungo dute zure irriaren doinu alaiek eta zure hitzen nota goxoek gure bihotzetan.

USTEKABEKO LAGUNAK



"Maitane Castillo

Zu galtzearekin batera
galdu dugu argi bat
galdu dugu indar bat
...galdu dugu
baina geratzen zaigu
zure kemenaren eredia

Ignacio Zuloaga BHI institutua"